

EKOSISTEMAK

1. Zeintzuk dira ekosistema baten hiru elementuak?
 - Biotopoa, biozenosia eta oreka
 - Biotopoa, biologia eta euren arteko erlazio ugariak.
 - Biotopoa, biozenosia eta euren arteko erlazioak.

2. Esan egia ala gezurra diren
 - Basamortuak ekosistema mistoak dira.
 - Deskonposatzaileak onddoak eta bakterio batzuk dira.
 - Ekoizleek nutrizio heterotrofoa dute.
 - Kontsumitzaileak jaten dutenaren arabera belarjale, haragijale edo orojaleak izan daitezke.

3. Biozenosia ekosistema batean elkarrekin bizi diren _____ multzoa da.

4. Lotu:

Hondartzak	Urtarra
Basoak	Mistoa
Arrezifeak	Lehortarra

5. Ekosistema bat _____ dago barneko erlazioak egonkorrak badira eta ekosistema horretan dauden populazioek bizirik iraungo badute.

6. Idatzi ingurune fisikoa, populazioa eta komunitatea kontzeptuak bere definizioekin.
 - _____ ekosistema bateko populazio guztien multzoa da.
 - _____ ekosistema bateko espezie bereko izaki bizidunen multzoa da.
 - _____ ekosistema bateko izaki bizidunak bizi diren lekua da.

7. Sailkatu: ekoizle, kontsumitzaile edo deskonposatzaile?

